

4. Irabazi Iturriak:

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zaizkizue produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

City parking aplikazioak harpidetzagatik sariaren bidez lortzen ditu diru-sarrera gehien. Hau da, aplikazioa erabili ahal izako 2,99 €ko ordainketa egin behar da hileroko. Hau kostu finkoa da eta ordainketa errepikaria. Hau izango litzateke enpresaren diru-sarrera nagusia.

Horrekin batera, kalean aparkatzean ordaindu beharreko OTA-ren %13a ere diru-sarrera izango da enpresarentzat. Horretarako udaletxeekin harremanetan jarri behar da eta harekin onartu eta adostu ehuneko zehatza.

Gainera, gure aplikazioak babesle bat izango du; hala nola, kotxe marka bat. Horrela, aplikazioan babeslearen iragarkiak agertuko dira eta horri esker ere diru-sarrerak izango ditugu (1.500-2.000€ inguru hilean).

Azkenik, ideia aurrera eramateko hasierako inbertsioa behar da eta hori aplikazioa erabili nahi duten herri eta hirietako udaletxeek emango dute. Izan ere, aplikazioaren erabilerak herriko biztanle eta turistei aparkatzeko orudan denbora aurrezten lagunduko die eta horrela, onura zuzenak izango ditu hirian; hala nola, trafikoaren murrizketa. Beraz, hainbat herri eta hiriri proiektuan inbertitzea komeni zaie.